

## Mikel Cabieces Estatuko ordezkaria lanak gainbegiratzera etorria da

Euskal Autonomi Erkidegoan Estatuko Gobernuaren ordezkaria den, Mikel Cabieces eta Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkateak Tokian Tokiko Estatuko funtsak finantzatzeko proiektuen lanak gainbegiratu zituzten atzo, Oriako pabilioien atzealdeko eraberritzea eta frontoi eta padel pista berria.

Iñaki Mugika hirigintza sailleko arduradunaren eta Ibon Rosales udaleko arkitektoaren laguntzaz Gobernuko ordezkariak bi proiektu garrantzitsu hauen nondik norakoak eza-gutu ahal izan zituen.

### Bisita

Oriako pabilioien atzealdearen eraberritze proiektua ingurumen-ekintza ikusgarria da, Lasarte-Oriako alkateak ana Urchueguiak azpimarratu zuen bezala, "lan hau oso garrantzitsua da guretzat. Hogei urte daramatzagu ibaiaren eremua berreskuratu nahian, herritarrentzat ibai aisia eta dibertsio gunea izatea nahi dugulako. Eta lan hau garrantzitsua da ez bakarrik pasealekuarengatik, baizik eta lanak dakarren azpiegiturarengatik. Lan honek uraren bilketa eta ibaiaren ur kontrolatzeko azpiegitura dakar ere. Gainera, honi esker, Michelinetik Oriara 3 kilometrotako pasealekua izango dugu eta zirkuitu garrantzitsua izango da."

Eta ostean, frontoi eta padeleko pisten lanetan egon ziren. Proiektu honek udalerriko kirol ekipamendua osatzea eta sendotzea dakar. Egun, frontoiaren porlaneko-estruktura bukatu dago eta bi eraikinen itxuraren estruktura jartzten ari dira.

"Egoera ekonomikoa dagoen bezala egonda, hau guztia, estatu zentraletik iritsi zaizki-



Frontoi eta padel pista berria bisitatu zituen Mikel Cabieces, Estatuko ordezkariak, Udaleko ordezkarien laguntzaz.

gun laguntzei esker egin ahal izan dugu," azpimarratu zuen Ana Urchueguia alkateak.

Bi proiektuak abenduaren 31rako amaitu behar dira eta horrela izatea espero du Lasarte-Oriako Udalak. "Oriako pabilioien lanak 5 hilabete epea dute eta ordurako bukatua egotea espero dugu," esan zuen Ana Urchueguiak.

### Lana sortu

Tokian Tokiko Estatuko funtsaren helburua jarduera ekonomikoan eragiten duten inbertsioak egin eta, hauen bidez, lan postuak sortu eta udalen kapitalizazioa bermatu nahi izan dela azaldu zuen Mikel Cabieces Estatuko Gobernu ordezkariak.

"Lana sortzea edo mantentzea zen laguntza hauen helburua eta ongi bete da. Proiektuen arabera, 2.907 lanpostu sortzea espero genituen Gipuzkoan, baina 3.734 izan dira. Estatu osoan



Oriako pabilioien atzealdeko eraberritze lanak ere ikusi zituen.

15.000. Beraz, lehenengo helburua, krisi ekonomiko egoera batean, lana sortzea soberan bete da," adierazi zuen Cabiecesek.

Lasarte-Oriako alkateak

ere, horren harira, "lan postuak sortu ditugu, eraikuntza arloko langabezia zegoen jendea hartu dugu eta lanerako berreskuratu ditugu," adierazi zuen. •



Zure bai zortea!  
Buruntzaldeko euskaltegien kanpaina aurkeztu da /4-5

### GIZARTEA /3

**Mugikortasun astearren barruan hilaren 25an bizikleta festa handia antolatu da Andatza plazan**

### KULTURA /3

**X-expression eta Gazteria sailak antolatuta Latitud 43 kultur etxean**

### KIROLA /6

**Maialen Chourraut palista Munduko txapeldun ordea La Seu d'Urgellen**

**munterri**  
euskaltegia **aek**

Matrikultzeko epea irailaren 1etik aurrera

- Euskara agiriak
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- EGA
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, behea  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 372863  
lasarte@aeknet.net

ikasi euskara  
**eman izena aek-n**  
Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak **www.aek.org**



...garena ikasteko!

**Neure kabuz**



**Ikarturte berria**

Haurrak eskoletan hasi dira, helduak lanean, etxekoak bere egunerokoa, eta denok, oporrrak eta geroko, betiko, erritmo horretan. Ikasturtea eskola baino gehiago zaigu, egunerokotasuna dela esan daiteke, nahiz eskola kutsua hartzen duen horrelakotan. Bestalde, beti dago zer ikasi, eta zentzu horretan, eskola batean bezala bizi gara, ikasten. Barkatuko didazue baina, nire aldetik, Lasarte-Oriako elizak aurtengo urterako duen xedea eskaini nahi dizuet, hor ere ikasi bai daiteke zerbait, hainbeste eskaintzen artean.

Azken urte honetan hasiak gara Bibliaren irakurketan sakontzen eta horrelakoetarako hainbat talde biltzen dira jadanik. Zehazki badira bi talde euskaraz elkartzen direnak, baita erdarazkoak ere. Gero, otoitz egiten ikasteko tailerrak deiturikoak egiten dira, eta urtero bildu ohi da jende multzo polita. Meditazio, kontenplazioa, hausnarketa... Aurten ere jarraituko dugu horretan. Caritasen astero-astero zerbitzua egiten dutenak ere hortxe daude, baita etorkin berriein elkartuz, lan egiten dutenak eta gaitxoak bisitatzu ari direnak. Berdin herriko presoei eta hauen familiei eskua botatz aritzen direnak eta misio eta kooperazio mundukoiei buruz ere asko dago esateko. Lan esker-ga, apal-apal ari diren, jende guzti hauena.

Zoriontzekoa da Lasarte-Oria baten ikusten diren lan eta ekimenak, eta guzti horien atzean ari diren pertsona eta antolamenduak. Era askotakoak, anitzak, baina eskertzekoak, zalantzarik gabe, hor ikusten bait da herri baten arima, nondik eta norako indarra eta kemena dagoen bizi garan egunerokotasunaren azpian.

**Xabier Andonegi**

**Zorion-agurrak**



**Yoana**

Zorionak aita-ama, Enara, aitona-amona eta Maitearen partetik.



**Imanol**

Zorionak aita-ama, aitona-amona, Richard, Pablo eta Maitearen partetik.



**Maite**

Zorionak poxpolin 7 muxu handi, guraso eta aitona-amonen partetik.



**Yosune**

Zorionak! Ondo pasa zure egunean eta 23 muxu handi familiaren partetik.



**Haizea**

Zorionak izeba! Muxu handi eta ondo pasa, Irati, Iker eta familiaren partetik.



**Arantxa**

Zorionak! Lasarteko pelukera politenarentzat. Muxuk



**Ane**

Pitxin, 6 musu handi, eta besarkada bat. Ainhoa, Maria, Josexo eta Pili.



**Jon**

Aupa txapeldu! Zorionak eta hamar muxu handi familiaren partetik. Ondo pasa!



**Nahia**

Zorionak! Aizan... urrutira begira hago... Lasai, laster etorriko dun eta, eutsi goiari!

**Telefonoak**

**Osasuna / Larrialdia**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
 DYA ..... 943 464622  
 Gurutze Gorria ... 943 363953  
 Udaltzainak ..... 943 362442  
 Ertzaintza ..... 943 288888  
 SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
 Euskarako Zerbitzua 943 376184  
 Kiroldegia ..... 943376182  
 Kulturetxea ..... 943376181  
 Bakezko epaitegia . 943371629  
 Zerbitzu Sozialak . 943376179  
 Zentro Zibikoa ... 943363958  
 KIUB ..... 943361605  
 Udal euskaltegia ... 943361621  
 Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

**Guardiak**

**Ostirala, 18**  
 De Miguel, Kale Nagusia 32  
 Tel.: 943 371 151  
**Larunbata, 19**  
 De Miguel, Kale Nagusia 32  
 Tel.: 943 371 151  
**Igandea, 20**  
 De Miguel, Kale Nagusia 32  
 Tel.: 943 371 151  
**Astelehena, 21**  
 Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
 Tel.: 943 361 774  
**Asteartea, 22**  
 Gil, Kale Nagusia 24  
 Tel.: 943 361 529  
**Asteazkena, 23**  
 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
 Tel.: 943 363 549  
**Osteguna, 24**  
 Urbistondo, San Frantzisko 1  
 Tel.: 943 366 567

**Azoka txikia**

**Eskaizta inmobiliarioak**

• Ezcaray-en duplex bat saldu edo alokatzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. la berria. Tel.: 652774679

• Lasarte-Oriako erdialdean 100 metro karratuko etxea alokatzen dut. Harremanetarako zenbakia: 686 674 552.

• Garaje bat alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. Harremanetarako zenbakia. 686 674 552.

• Gela bat alokatzen da Lasarte-Oriako erdigunean. Harremanetarako zenbakia: 666 607 447.

**Salerosketak**

• Salgai gas-frijigailu industrialak. Refugas markakoa; luzeran 63 zm. eta zabalean 40. Erabilgarriak: luzeran 43 erabilgarriak eta 28 zabalean. Salneurria: 250 euro, negoziagarriak. Sukalderako bajilla opari. Tel.: 943 371 902, 648 833 472 eta 676 742 860.

• Opel zafira bat saltzen dut. 3 urte ditu eta 40.000 km. Harremanetarako zenbakia 677 983 068.

**Oharrak jartzeko:**

www.btxinxarri.iragarkilaburrrak.com  
 www.btxinxarri.info  
 Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 • btxinxarri@btxinxarri.info

**Lan-eskariak**

• 56 urteko emakume bat eskaintzen da goizeko 08:00etatik 15:00etara pertsona edadetuak zaindu edo etxeko lanak egiteko Lasarte-Oria eta Hernani inguruan. Tel.: 687 348 223.

• Mekanika tailerlean, pertsona helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko gizona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 648 785 026.

• Etxe batean interna edo orduka lana egingo nuke. Harremanetarako zenbakia, 676 188 411.

• Etxe batean interna edo lana orduka egingo lukeen emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 608 098 941.

• Etxe batean interna lanetarako emakumea bat eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 943 368 574.

**Bestelakoak**

Bi karate traje eman nahi ditut. 1,70 m. eta 1,90 m. dute neurria. Doan. Interesa dutenek deitu 943 363 371 (Ana) telefono zenbakira.



**Jaiotzak**

Aner Martínez Villar,  
 irailaren 12an  
 Aoxaang Feng,  
 irailaren 8an  
 Alaitz Olazabal Gutierrez,  
 irailaren 3an

**Heriotzak**

Ignacio Recondo Lizaso,  
 irailaren 14ean 84 urte zituela  
 Manuel Ruiz Corres,  
 irailaren 13an 71 urte zituela  
 Gregorio Pollos San Jose,  
 irailaren 11n 63 urte zituela  
 Matias Martin Marcos,  
 irailaren 4ean 79 urte zituela

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



**Lasarte-Oriako Udala**  
**Euskarako Batzordea**



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



**EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Bizikleta protagonista Mugikortasun astean

■ Irailaren 22an, *Autorik gabeko eguna* da eta 25ean, *Bizikletaren eguna*

Ricardo Ortega buru duen Ingurumeneko Departamentuak bizikletari ongi merezitako protagonismoa ematea erabaki du irailaren 21etik 25era antolatu duen *Mugikortasun astean*.

Ingurumena gehien zain-tzen duen ibilgailuetakoa den aldetik, bizikletaren erabilera-ri garrantzia eman nahi izan zaio aurten eta jarduera ugari antolatu dira hilaren 25erako, Andatza plazan.

## Autorik gabeko eguna

Baina, aurretik irailaren 22an, astearte, Europako Autorik gabeko Eguna da.

Eta horregatik, trafikoa itxita egongo da Kale Nagusian, Ola kalearekin elkartzan den puntutik Tajamarreko errotondaraino, 4 orduz, 9:00etatik 13:00etara bitartean.

## Bizikletaren festa

Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, irailaren 25ean prestatu den bizikleta festa handia.

Lehenengo ekintza, taldeko ibilaldia da. Andatza plazatik hasi eta Plazaola trenbidearen garai bateko ibilbidean barrena adin guztietako herritarrek bizikletaz eta ikuspegietaz gozatu ahaliko dute.

Ostean, 17:00etatik 19:30era, bizikletarekin zeri-kusia duten jolasak eta gymkhana antolatu dira plazan. Jolasak parte-hartzaileen adinera moldatuak egongo dira.



Ederki pasa zuten iaz haurrek gymkhana egiten; aurten ere, aukera izango dute irailaren 25ean, Andatza plazan.

## Azoka

Festa-esparru berean eta festak irauten duen bitartean, bigarren eskuko bizikleten azoka txiki bat egingo da.

Bere bizikleta erabilia edo osagarriren bat saldu edo trukatuhahi duen edonork horretarako prestaturiko karpeta utzi ahaliko du.

Bizikletak egunean bertan jasoko dira, eta arratsaldeko azken orduan pasa beharko da salmentaren dirua edo saldu ez den bizikleta jasotzera.

Aurtengo azokan, salgai jartzen den bizikleta bakoitzaren fitxa osatuko da.

Jabearen eta eroslearen datuak ere jasoko dira, lapurtuak izan daitezkeen bizikletak salgai jartzea ekin edo etorkizunean lapurreta baten aurrean, non erosia izan den zehaztuko duen agiri bat izateko.

Gainera, azoka honek mugikortasun iraunkorarekin dituzten kontzertuek Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegia musikaz beteko dute berriro ere.

## Tailerrea

Era berean, haur eta gaztetxentzat bereziki, baina baita nahi duten helduentzat ere, bizikletaren erabilera eta

zainketarako oinarritzko azalpenak emango dira.

Landuko diren gaien artean: bizikleta neurritan jartzearen garrantzia, neurketak egitea, kanbioak nola erabili, frenoak, zulaketak nola konpondu...

Bizikletazko ibilaldian, jolas-zirkuituan eta tailerrean, Lasarte-Oriako Bazpi Txirrindulari Eskolak aktiboki parte hartuko du lehenengoz.

Ingurumeneko Departamentuak, jakin arazten du, euria eginez gero, jarduera horiek guztiak Michelingo teniseko pista estalietara eramango direla. •

## IKASTAROA

### Zuraren taila

Manuel Lekuona kultur etxean urriaren 13tik abenduaren 17ra zuraren taila ikastaroa antolatu da. Astean 5 ordu egingo dituzte astearte eta ostegunetan banatuta eta bi ordutegi desberdin eskaintzen dira, bata 15:00etatik 17:30era eta, bestea, 17:30etik 20:00etara. Talde bakoitzean 12 ikasle egongo dira gehienez eta 15 urtetik gorakoentzat da.

Izena emateko epea irailaren 21etik urriaren 9ra arte egin daiteke Gazteen Informazioarako Bulegoan, kultur etxeko 3. solairuan astelehenetik ostiralera 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.

Beharrezko dokumentazioa E.N.A.ren fotokopia, karnet tamainako argazkia eta behar bezala betetako izen-ematearen fitxa.

Matrikularen zenbatekoa erroldatuentzat 43,20 eurokoa da eta 81,40 erroldatu gabekoentzat. •

## EUSKARA

### Udal euskaltegiaren egoitzaren inaugurazioa gaur

Aurreko TXINTXARRIKO zenbakian aurreratu genuen bezala, gaur 11:00etan, inauguratzen da Udal euskaltegiaren egoitza berria.

Osasun Zentro berriko eraikinean dago kokatua orain Udal euskaltegia, 3. solairuan, hain zuzen ere. Otsailetik daramate lanean bertan, baina ikasturte hasierari indarrez ekiteko egoitzaren inaugurazioa egingo dute.

Ospakizunaren ostean, atek irekiak izango ditu euskaltegiak. Eta, jakin arazi digutenez, lasarteoriatar guztiak gonbidatuak daude egoitza berria ikustera. •



Latitud 43 taldeak Abend kafe-antzokian eskaini zuen kontzertuan.

## Latitud 43 taldea kultur etxeko kafetegian

Hiru hilabeteko atsedenaldiaren ostean, X-pression Kultur Elkar-teak eta Lasarte-Oriako Udala-ren Gazteria sailak antolatzen dituzten kontzertuek Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegia musikaz beteko dute berriro ere.

Latitud 43 izango da udako etenaldiaren ondoren, ikusleen motoreak eta eszenatokia bertuko duen lehenengo taldea.

Bigarren aldia da taldeak Lasarte-Orian jotzen duena. Lehenengo *Abend kafe-antzokian* izan zen eta ikusle kopuru handia bildu zen bertan *Latitud 43* ikustera. Ea kultur etxean ere hori gertatzen den.

### Latitud 43

La Navaja de Occam taldeko

musikari ohiek eta beste zenbait musikariek osatzen duten talde donostiarra dugu *Latitud 43*.

Musikari berri hauek dimentsio berria ematen diete taldearen abesti zaharrei eta, gainera, freskotasuna eman diote taldeko konposizio prozesuari.

Abestiak forma hartzen doan heinean soinua firmeago eta sendoagoa bilakatzen da.

### Beste aukerak

Honetaz gain, gaur bertan beste bi kontzertu daude. *Nevermind* taldeak *Nirvanaren* abestien bertsioak joko ditu *Jalgi kafe-antzokian* eta *Trumoi* tabernan *DJ Grassmannek* musika beltzeko saioa egingo du. •

## KULTURA

### Erketz Dantza Eskolako matrikulazioa irekita

Erketz E.D.T-k Dantza Eskola urrian hastear dago. Eskolako entsaioak astelehenetik larunbatera izango dira eta haur bakoitzak bina ordu astean egingo ditu.

2004. urtean baino lehen jaiotakoek eman dezakete izena, hau da, 5 eta 14 urte bitartekoek. Izena emateko epea irailaren 21ean zabalduko da 24ra bitartean (biak barne) arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara Zumaburuko eskolan. •



# Zurea bai zortea!, etxetik gertu euskara ikasteko aukera duzu

Buruntzaldeko euskaltegiek matrikulazio kanpaina abiatu dute eta aurten lehenengo aldiz ikastaroen eskaintza bateratua prestatu dute. Gainera, eskualdeko euskaltegien eskaintza bateratua eta bestelako informazio interesgarri ugari euskara.buruntzaldea.org web gunean zintzilikatu dute Euskaltegiak izeneko atal berrian.



Ikasturte berria ate joka dugu eta inoiz berandu ez denez, euskara ikasteko edo euskara maila hobetzeko garaia heldu da Buruntzaldera. Ohikoa da urte berriarekin, ikasturte berria hastean edo oportetarik itzultzean asmo berriei eustea, eta oraingoan euskara ikastea edo euskara maila hobetzea izango da, bat baino gehiagorentzat, ikasturte berriko erronka. Horregatik Buruntzaldeko euskaltegiek matrikulazio kanpaina jarri dute martxan Zurea bai zortea! lelopean.

## Etxetik gertu euskara ikasteko aukera

Buruntzaldeko euskaltegiek estreinakoz egin dute matrikulazio kanpaina eskualde mailan. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilek euren herrietan

euskaltegiak izan arren eta bakoitzak bere matrikulazio kanpaina egin arren, aurrengoan euskaltegi guztiek elkarrekin egin dute kanpaina ikastaro eskaintza zabalagoa eskaini ahal izateko, ordutegi eta maila dagokionez.

Hala, beste herri bateko eskaintza interesatuaren beharretara hobe egokituz gero, bertan matrikula egiteko aukera izango du inongo arazorik gabe. Hau da, Lasarte-Oriako euskara ikasleak ez du inongo arazorik izango Usurbilgo euskaltegi ikastaro batean matrikulatzeko.

Gainera, maiatzetik martxan dagoen autobus zerbitzuari esker ez dago aitzakiarik eskualdean barrena mugitzea. Ordutegi zabal eta bi linea, Astigarraga-Usurbil eta Urnieta-Usurbil, eskaintzen ditu zerbitzua (ikus ordutegia

kirolak.buruntzaldea.org web gunean). Lehenengo autobus zerbitzua 07:00ak inguruan hasten dira eta azkenak beriz, 22:00ak inguruan igerotzen dira heriz herri. Oso maiz igerotzen direnez, eskualdeko euskaltegiak ordutegiek bateragarriak izango dira.

2009-2010 ikasturtean guztien beharretara egokitutako ikastaroak eskainiko dituzte eskualdeko euskaltegiak, bai ordutegiari dagokionez, baita edukiarri dagokionez ere. Beraz, ikaslearen beharrik edozein direla ere, ziur badirela behar horietara egokituko ikastaroak.

## Ikastaro eskaintza zabal

Eskualdeko eskaintza oso zabal da, eta maila guztietaiko ikastaroak eskaintzen dituzte bai AEKko euskaltegietan baita Udal Euskaltegietan ere.

## Informazio guztia Euskara.buruntzaldea.org web gunean

### Ikastaroen bilatzailea

Eskualdeko euskaltegiak ikasturte berrirako prestatu duten eskaintza zabal euskara.buruntzaldea.org web guneko Euskaltegiak atal berrian kontsulta daitezke, herriaren edota euskara mailaren arabera. Ikastaroaren zehaztasun guztiak eta euskaltegi antolatzailearen informazio orokorra bertan aurkituko duzue. Horrez gain, erabiltzaileak bere beharretara egokitzen den ikastaro horretarako matrikulazio eskaera egin dezake web guneetik bertatik eta eskaera dagokion euskaltegiak jasoko du.

Aurrez aipatutako udalen diru laguntzen berri ere bertan jaso da.

### Automailaketa

Bestalde, euskaltegiara joan aurretik norberaren euskara maila ezagutzeko aukera eskaintzen du euskara.buruntzaldea.org web guneak. "Automailaketa" atalean maila bakoitzari dagokion testak zintzilikatu dira. Test horiek

egin ostean, erabiltzaileak eskualduntze prozesuan duen gutxi gorabeherako maila ezagutuko du. Erreferentzia hori gutxi gorabeherako izango da, eta euskaltegiaren ikastaroaren batean izena eman nahi izanez gero, mailaketa zehatzagoa egin beharko da bertan. Euskara maila bakoitzak dituen ezaugarrien eta ziurtagirien arteko baliokidetzen inguruko informazioa web gunean bertan kontsulta daitezke.

### Europako Erreferentzi Markoa

Euskaltegi guztiak Europako Erreferentzia Markoaren pean ari dira lanean eta mailen eta gaitasun agiriaren erreferentziak berberak dira. Beraz, ez dago arazorik, taldea izan eta hala komeni izanez gero, ikas-prozesua euskaltegi batean hasi eta hurrengo ikasturtean beste batean jarraitzeko.

Baliokidetzaren sistema horren inguruko informazio gehiago euskara.buruntzaldea.org web gunean aurkituko duzu.

### Lotura interesgarriak:

- Buruntzaldeko Euskara Zerbitzuen web gunea: euskara.buruntzaldea.org
- AEK, Euskalduntze eta Alfabetatze Koordinadora: www.aek.org
- Udal Euskaltegiak: www.udaleuskaltegiak.net
- HARE, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea: www.hare.euskadi.net
- IKA Euskaltegiak: www.ikanet.net

	Andoain	Astigarraga	Hernani	Lasarte-Oria		Usurbil
	AEK	AEK	AEK	Udal Euskal.	Udal Euskal.	AEK
1A maila	✓	✓	✓	✓	✓	✓
1B maila	✓	✓	✓	✓	✓	✓
2 maila	✓	✓	✓	✓	✓	✓
3 maila (EGA)	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Autoikaskuntza	✓	✓	✓		✓	
Mintzapraktika	✓	✓	✓			
Ikastaro bereziak	✓	✓	✓			

## Euskara ikasteko diru-laguntzak

Euskara ikasi edo maila hobetu nahi dutenek, Buruntzaldeko udalen diru-laguntza izango dute. Diru-laguntza hauek jasotzeko baldintzak eta emateko irizpideak udal bakoitzaren araberakoak izango dira. Zenbait kasutan matrikularen kostuaren %100 jaso dezakete euskara ikasleek.

Ez dakizu euskaraz eta ikasi nahi al duzu?  
Duzun maila hobetu nahi duzu?  
Zure zerbitzua euskaraz eman nahi duzu?

2009/2010 ikasturtea  
matrikulatu Buruntzaldeko euskaltegietan!



Zurea bai zortea!

¡Estás de suerte!

¿No sabes euskera y te gustaría aprender?  
¿Necesitas mejorar tu nivel?  
¿Quieres ofrecer tu servicio en euskera?

curso 2009/2010  
matricúlate en los euskaltegis de Buruntzaldea

**Kiroletako agenda**

**FUTBOLA**

**Larunbata 19**

**11:00etan**, Ostadar-Añorga (Emakumezkoen kadeteak F-11) Michelinen.

**12:30ean**, Ostadar-Tolosa (Infantilen Ohorezko maila) Michelinen.

**14:00etan**, Ostadar-Usurbil (I. Kadetea) Michelinen.

**15:30ean**, Ostadar-Kostkas M.B. (I. Jubenila) Michelinen.

**17:15ean**, Ostadar-Mundarro (Erregional Gorena) Michelinen.

**15:30ean**, Añorga-Ostadar (Emakumezko Erregionala) Rezola, Añorgan.

**18:00etan**, Euskalduna-Texas Lasartearra (I. Erregionala) Allurralde, Andoainean.

**Igandea 20**

**10:00etan**, Hondarribia-Ostadar (Infantil txikiak) Ondartza, Hondarribin.

**12:00etan**, Añorga-Texas Lasartearra (I. Jubenila) Rezola, Añorgan.

**19:15ean**, Santo Tomas Lizeoa-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Berio.

**BOLA-JOKOIA**

**Larunbata 20**

**10:00etan**, Martin Egaña eta Santi Garcia memoriala, Michelinen.

**Kiroletako oharrak**

**Neguko ordutegia**

Irailetik aurrera herriko kirol guneen ordutegia honako hau izango da. Kiroldegia, astelehene-tik ostiralera, 7:00etatik 22:30era egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeetan, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00tik 12:30era eta 14:00tik 21:30era, larunbatetan 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, igandeetan 9:00etatik 13:00etara eta Michelingo kirol gunea, astelehene-tik ostiralera, 15:00etatik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeetan 9:00etatik 13:00etara.

**Ostadarreko Futbol Eskola**

Ostadar K.Fk jakin arazten du, Futbol Eskolan izena eman duten jokalariek elkarteko bulegora, Geltoki kalea 25. zenbakira, gerturatu behar direla dokumentazioaren bila.

**Tenis eskolaren ikasturte hasiera**

LOKEko Tenis 2009-2010 ikasturteari hasiera eman dio. Tenis eskola 7 eta 16 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua dago.

Eskolarekin harremanetan jarri nahi izanez gero, irailaren 14tik aurrera eta arratsaldeko 18:30etatik aurrera Michelingo kirol gunera hurbil zaitezke.

**Igeriketako ikasturtea abian**

Buruntzaldea I.K.T.k ireki dugu jadanik 2009-2010 ikasturteko matrikulazioa. Izena emateko jo udal kiroldegira 18:00etatik 21:00ak bitarte edo deitu Ruben Villalon entrenatzaileari (696 506673).

Adinaren arabera entrenamendu egunak eta ordutegian desberdinak izango dira: 96koak egunero 19:00etatik 21:15era; 97koak, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan 19:30etik 21:15era; 98-99an jaioak, astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:00etatik 19:30era; 2000koak astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:30etik 19:30era; 2001ekoak astearte eta ostegunetan 18:45etik 19:30era eta 2002an jaioak astearte eta ostegunetan 18:00etatik 18:45ak arte. Animatu eta etorri gurekin igeri egitera.

**Gimnastika entrenamenduak**

LOKEko gimnastikako neskek entrenamenduak hasi dituzte, 7 eta 8 urteko neskatokak izan ezik, urrian hasten direla.

Gimnastika egin nahi duten neskek irailaren zehar eman dezakete izena entrenamendu egunetan, osteguna eta ostiraletan, 19:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 12:00etatik 13:30era.

Informazio gehiago eskuratzeko, jarri zaitezte harremanetan Maite Rueda entrenatzailearekin, 676 872 029 zenbakian.

**Lurraldeko epaile kurtsoa**

Gipuzkoako atletismo federakuntzak lurraldeko epaile kurtso bat antolatuko du datorren irailaren 21 eta 22an.

Teoria saioak irailaren 21 eta 22an izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara arte kirol-etxeako Juan Muguerza aretoan eta Epaile Nazionala den Maite Sternern eskainiko ditu. Saio praktikakoak, ordea, neguko egutegiaren probetan egingo dira.

Kurtsoan interesa dutenak posta elektronikoz egin beharko dute, [gaf@kirolak.net](mailto:gaf@kirolak.net) helbidean.



Bi segundutako penalizazio bategatik ez zuen urrezko domina eskuratu.

Arg.: Maialen Chourraut.

**Maialen Chourraut txapeldun ordea Mundialetan**

**Selekzio Espainiarrarentzako piraguismoan bakarkako kategorian lortu den lehenengo domina da Maialenena**

Maialen Chourraut lasarteoriarrak igandean, La Seu d'Urgellen ospatutako ur harroko mundialean, eta K-1 kategorian, zilarra lortu zuen. Nazioarteko lehiaketetan emaitza hobereana lortu du lasarteoriarrak.

Eta historia ere egin du, izan ere, Selekzio Espainiarrarentzako piraguismoan bakarkako kategorian lortu den lehenengo dominarekin egin da Maialen. "Lan askoren emaitza izan da" esan zuen pozez beteriko kirolariak.

Oso ondo aritu zen igandean Maialen, baina akats txiki baten ondoren 2 segunduko penalizazioa izan

zuen, bestela urrea berarentzako izango zen. Lehenengo postua Jasmine Schornberg alemanak eraman zuen eta hirugarrena Elizabeth Neave-  
rentzat izan zen.

rentzat izan zen. Lehenengo postua Jasmine Schornberg alemanak eraman zuen eta hirugarrena Elizabeth Neave-  
rentzat izan zen.

Asteleheneko Txintxarrin Maialeni eginiko elkarrizketa irakurri ahal izango duzue. Zorionak Maialeni!

**Guztia prest VI. Martin Egaña eta Santi Garcia memorialerako**



Igandean, hilaren 20an, jokatuko da Michelingo Udala Kirol guneko bolatokia Martin Egaña eta Santi Garcia-ren omenezko bolo memoriala. Izen-ematea Michelingo bolatokia bertan egin behar da 10:00etatik 12:00etara.

Bi maila izango dira, hots, gizonezkoak eta emakumezkoak. Bertako bolariez gain, Gipuzkoa osotik etorritakoak espero ditu Jose Antonio Montes, antolatzaileetako batek, lehiaketa irekia izango baita.

**Kirol federatuen emakumeen partehartzea sustatzeko diru laguntzak**

Lasarte-Oriako Udalak, kirol federatuen emakumeen partehartzea sustatu eta indartzeko asmoarekin arden ere diru laguntzak eskaintzen dizkie herriko kirol elkartei.

Kirolen Batzordeak 18.000 euroko laguntzen egitasmoa onartu du. Irailaren 30ean herriko kirol elkartei laguntza hauek eskatzeko epea amaitu egiten zaiela jakinarazi nahi du udaleko kirol batzordeak.

Interesaturik dauden elkarte guztiek, laguntza hauek arautzen dituzten oinarriak Udalaren Kiroldegiko bulegoetan dituzte eskuragarri.

Egunero

**Erakusketa**

GOIZANE MENDIZABALEN zarautzarraren argazkiak ikusgai. Jalgi kafe-antzokian egun osoan zehar.



Ostirala, 18

**Kontzertua**

LATITUD 43 taldeak dimentsio berria ematen die abesti zaharrei eta freskotasuna ematen dio taldeko konposizio prozesuari. Abestiak forma hartzen joango dira eta soinua firmeago eta sendoagoa bilakatzen da. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

**DJ emanaldia**

DJ GRASSMANN-ek musika beltzean oinarritutako saioa eskainiko du. Trumoi taberna, 23:00etan.



Pedro B. Mavor Saavedra (fildkr/PEBIMASA)

Nirvanaren jazz bertsoak Jalgin

NEVERMIND Hirukotea, Nirvana talde ezagunaren jazz bertsoak egiten dituzte, beraz Nirvana taldearen abestiak modu ezberdin batean gozatzeko aukera ezinhobea duzue. Hirukotea musikari hauetaz osaturik dago: Hasier Oleaga (Bateria), Haritz Luzuriaga (Baxujolea) eta Jorge Abadías (Kitarra). Hirurok, nahiz eta gazteak izan, esperientzia handiko musikariak dira.

GAUR, OSTIRALA, 23:00ETAN  
JALGI KAFE-ANTZOKIAN  
EUSKARAZ

Asteartea, 22

**Aurkezpena**

PATXI ETXEBERRIA bertsolariaren bizitzaren liburua aurkeztuko da. Koldo Mitxelena kulturgunean, 12:00etan, EUSKARAZ.

Larunbata, 26

**Jaialdia**


LASARTE-ORIAKO VI. AKORDEOI JAIALDIA Zero-Setteren eskutik. jaialdiko protagonista Nathalie Boucheix izango da bere taldearekin. Hauetaz gain Zero Sette orkestra eta Xabier Iglesias akordeoijolea egongo dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.



Igandea, 27

**Omenaldia**

BERTO SAIOA izango da PATXI ETXEBERRIAREN omenez Andoni Egaña, Jexux Mari Irazu, Unai Muñoz, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia, Koxme Lizaso eta Jon Azpillaga bertsolariekin. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan, euskaraz.



**Liburutegiko ordutegia**

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

**Oharrak**

**Oztabide elkarteko bilera**

Arranbide-Oztaran auzoko bizilagunei Oztabide elkar- teak jakinarazi nahi die irailaren 19an, larunbata, goizeko 11:00etan bilera bat dagoela. Bilera Oztabideko lokalean izango da (Oztaran ikaste- txearen atzealdean). Elkarteko kideekin harremanetan jarri nahi izanez gero idatzi mezu bat oztabide@hotmail.com helbidera edo deitu telefonoz: 627 818 225 (Joseba) eta 661 068 301 (Pili).

**Lasarteko kale-musika eskola abian**

Abian da Lasarteko kale-musika eskola! Tronpeta, gitarra, ijitu kaxa... Ekarri nahi duzun tresna eta kutsa zaitez musikarez majiaz! Asanblada egingo da irailaren 22an, asteartea, arratsaldeko 18:30ean "Villa Mirentxu"ren aurrean. Animau adarra jotzea!

**Marrazki eta margo eskola**  
Lasarte-Oria Bizilagunen

elkartek gaztetxo eta hel- duentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastaro- etako izen-emateko epea zabaldu du. Beraz, interesa duzenok irailaren 21ean, 23an eta 25ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 7, behea zenbakian duten egoitzan.

**Galdutako arropa**

Udako Txokoetan eta Kanpal- dietan galdutako arropa jasot- zeko aukera izango da irailaren 18ra bitartean Ttakuneko bulegoan, Geltoki kalea 4. zenbakian.

**DYAKo Sorosle Ikastaroa**

Irailaren 16tik urriaren 6ra bitartean, 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik osti- ralera, DYAKo soro- sle ikastaroa izango da Landaberri-Garaikoetxea ikas- tolan (Atsobakar,3). Unibertsitaterako 2 kreditu eskeintzen ditu. Informazioa eta aurrein- skripzioa 943-464622 telefo- noan

**Alboka Abesbatza**

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, irailaren 10ean, osteguna, emango diela hasiera entsegu- ei. Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko gelara, astelehen edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hur- biltzeko gonbita egiten die.

**Amalur eskolak hasi du ikasturtea**

Irailaren 2an hasi zuten ikas- turtea. Amalur eskolan trikiti- xa, txistua, panderoa eta bateria irakasten dute. Tresnak ikasiz, musika bizi eta doinu alai- ez gozatu! Arratsaldeko 17:30etik 20:00ak arte. Izena emateko deitu telefono haue- tara 943 364138 eta 616 447 729 edo eskolatik pasa zaitez- kete.

**Zitek eskolak hasi du ikas- turtea**

Irailaren 7an hasi zuten ikas- turtea. Zitek eskolan matema- tika, fisika, marrazkia,

lenguaia, irakasten dute bes- teak beste. Eta aurten ere bai nerabe bai helduentzako, informatikako saio bereziak antolatzen dituzte IT txartela lortzeko. Arratsaldeko 16:00etatik-19:00ak arte. Izena emateko deitu telefono honetara 943363106 edo eskolatik pasa zaitezket.

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com

# Gripea edo A gripea, zer daukat?

■ Astelehenean hasi zen gripearen txertoaren kanpaina

NEREA EIZAGIRRE

Azken hilabeteetan A gripeak sortu duen larrialdiak ikusirik, Osakidetzak gripearen txertoaren kanpaina aurreratu du, etorkizunean gerta daitekeenari aurreratuz. Honela, astelehenean hasi zen gripearen txertoaren kanpaina eta urriaren 31era arte iraungo du.

"Aurten kanpaina aurreratu da, ez baitakigu hurrengo kanpaina, A gripearena edo gripearena, noiz izango den. Gainera, bi txertoen artean epe bat igaro behar da eraginkor izateko," azaldu digu Mary Luz Jauregui Osasun zentroko zuzendariak.

Zuzendariak azaldu digunaren arabera, "arriku taldea osatzen duten %70ak jasotzen du txertoa. Normalean lehenengo bi astetan jende ugari etorri ohi da eta gero bigarren aukera bat dago. Baina aurten agian ez dugu horren beharrik. Gainera, aurten besteetan baino txerto gehiago erosi dira, A gripeak sortu duen larrialdiarengatik arriku taldean dauden guztiak deialdira erantzutea espero baita."

"Batzuk duela bi aste hasi ziren gripearen txertoa noiz jaso zezaketen galdezka, eta ez hori bakarrik A gripearen txertoaren kanpaina noiz hasiko den ere galdetu dute askok," gaineratu du Osasun zentroko zuzendariak

## Arriku taldeak

Gripearen txertoa betiko arriku taldeei jarriko zaiela aipatu zigun Jauregui doktoreak, 65 urte gorako pertsonen, patologia kronikoak dituztenak edo zerbitzu medikoak, esate baterako.

A gripearen taldeak, ordea, "oraindik ez dakizkigu Osasun ministerioak erabaki behar du hori," adierazi digu Osasun zentroko zuzendariak.



Aurten Osakidetzak aurreratu egin du gripearen aurkako txertoaren kanpaina, astelehenean hasi zen.

"Logika erabiliaz, taldeak gripe normalarenak izan beharko lirateke. Hauetaz gain, gaixotasun larriak dituzten haurrak ere A gripearen txertoa jasoko dute. Hala ere, dirudienez, 65 urte baino gehiagoko pertsonak A gripearen aurka immunizatuak daude duela urte batzuk antzeko gripe mota bat pairatu zutelako, baina egoera hori aldatu daiteke," azpimarratu du Mary Luzek.

## A gripea

A gripeak hilkortasun txikiagoa duela eta sintomak ere ahulagoak direla baieztatu digu.

"Gripea eta A gripearen sintomak berdinak dira, ezin da jakin bata edo bestea den. Izan ere, gripearen antzera gaixo batek sintoma batzuk izan baititzake eta beste batek beste batzuk. Eta gripearen antzera, hiru edo lau egunetan osatua egon zaitezke, arazorik gabe," onartu digu Osasun zentroko zuzendariak.

Gainera, "zaila da A gripearen birusa nola hedatuko den jakitea," aurreratu digu.

## Sendagaia

A gripearen aurka dauden sendagaiei, *Tamiflu* eta txertoa buruz galdetu diogu Mary Luzi.

"*Tamiflu*a arriku taldeko jendeari ematen diogu. Birusaren garapena moztu eta gaixotasuna egun bat edo egun erdia murrizten du. Ingesatuak daudenei ere ematen zaie eta haurdun dauden emakumei ere. Hauei, gainera, kultiboan egin eta negatibo bada medikazioa kentzen zaie" adierazi digu.

Txertoari dagokionez, "gauzak ongi egin nahi dira eta horregatik egingo dira entsegu klinikoak ere. Gero, pixkanaka joango da txertoa jartzen eta egoeraren arabera esparrua zabaldu beharko da ziurrenik," aipatu digu.

## Haurrak

Mary Luzek azaldukoaren arabera, umeak, gaixotasun kronikoak dutenak izan ezik, ez dira arriku taldean sartzen. "Kanpaina egiten ari dira gripearen kutsadura handia izan ez dadin," adierazi digu.

Ikastolan jarraitu behar

dituzten araei buruz ere galdetu diogu, "Osakidetzak urtero egiten dituen gomendioak dira, normalean jendeak kasu handirik egiten ez dien arren," azaldu du Jauregui doktoreak.

"Honetaz gain, gurasoei eskatu nahiko genieke, haurrak sukarra baldin badu, eskolara ez eramatea. Dalsia eman eta eskolara bidaltzea ez da komenigarria. Birusaren agerraldi masiboa ekidin behar da," esan digu.

## Gripeari buruz

Lasarte-Oriako Osasun Zentroko zuzendariak gomendatuta, "eritasun larria duten pertsonen jo behar dute medikura gripearen sintomak sumatzean. Besteak etxean geratu."

Edo Eusko Jaurlaritzak jarri dituen web orrialdera, [www.euskadi.net/gripe](http://www.euskadi.net/gripe) edo gripearen telefonora, 900 474 732, dei dezakete zalantzak argitu eta gripeari buruzko informazioa eskuratzeko.

Era berean, Jauregui doktoreak arriku taldeetan dauden herritarrak txertoa jartzera animatu nahiko litzuke. •

## Osakidetzaren gomendioak gripearen aurrean

### Zer egin daiteke?

- Botatzeko musuzapiak erabili
- Eskuak garbitu, beste pertsona batzuek kutsatzea saihesteko
- Eztula egin edo doministiku egiten duzunean, sudurra eta ahoa ondo estali. Onena besoaren barrualdean eta ukondorantz egitea da.
- Ez erre eta ez edan edari alkoholdunik
- Analgesikoak edo antitermikoak har ditzakezu buruko minarantz edo sukarrantzat
- Ez hartu inoiz antibiotikorik zure kabuz; horiek hartzea beharrezkoa izango balitz, zure medikuak errezetatuko dizkizu
- Sukarra edo ondoez orokorra baduzu, gera zaitez etxean; horrek gaixotasuna gaintzen lagunduko dizu eta, gainera, lanean, ikastetxean... ez dituzu beste pertsona batzuk kutsatuko
- Joan zaitez medikuaren kontsultara gaixotasun kronikoren bat baduzu, haurdun bazaude edo ume txikiaren batek gripea harrapatu badu.

### Noiz eskatu behar da medikuaren asistentzia urgentea edo urgentziara joan?

- Ume txikien kasuan, honako hauek agertzen badira:
  - Arnaska eta azkarra edo arnasa hartzeko zailtasuna
  - Larruazalean erupzioak
  - Onera egin eta gero, berriro sintomak agertzen dira
  - Jan nahi eza edo ezer egiteko (jolastu, mugitu...) gogorik ez izatea
- Pertsona helduen kasuan, sintoma hauek antzematen badira:
  - Arnasa hartzeko zailtasunak
  - Mina edo presioa bular edo sabelaldean
  - Zorabio iraunkorra
  - Buru-nahaste egoera
  - 38°C-tik gorako sukarra lau egunetan



# Jalái

Cafe bar

TEL.: 943 372760

Kalitatea eta preziorik onena leku berean

EGUNEKO MENUA

- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOSARIAK

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria